

NORK BEREA

Aspaldi-aspaldi, Igartubeiti baserria zurezko, lastozko eta adobezko etxola bat besterik ez zenean, mundua oso bestelakoa zen. Diotenez, garai hartan gizakiok bagenekien hizketan animalian hizkuntzan; antza, diruak, jabegoek eta horrelako kontuek ez zuten izaten gaur besteko garrantzirik; kristautasuna hasia ei zen sartzan Euskal Herriko hiri eta herrietan hedatzen, baina haran eta mendietako jendeak fedea zien, artean, arbasoen jainko, jainkosa eta espirituiei, eta eguneroko harreman gozoa izaten zuten hilkorrek eta hilezkorrek.

Igartubeiti zaharrean bazen neskato bat, Zuria zeritzona; jaiotzean hain argia zuen azala, hain urdinak begiak eta hain horia adatsa, non gurasoek ez baitzuten inolako zalantzarik eduki izena jartzeko orduan: Zuria behar zuen, nahitaez.

Behin, goizean goiz, Zuria urketan joan zen iturrira, urte haietan ura ez zetorren-eta etxeetara; aitzitik, jendeak haren bila joan behar izaten zuen, inoiz oso urrutira. Iturburura iristerakoan, Zuriak kanta, barre eta berba soinu alaia aditu zuen; eta, badaezpada ere, astiro egin zituen azken urratsak, han inguruan nor ote zebilen jakin guran. Zuhaixa batzuen atzean ostenduta, laster ikusi zuen nork sortzen zuen iskanbila: lamia aldra bat zen, iturrian olgetan, urrezko ile-kiribilak orrazten eta txutxumutxuka. Gure Zuriak askoz lehenagotik zuen lamien berri, tarteka baserrira hurreratzen baitzitzazkien etxera, esne eske edo beste edozertara; baina, ordukoan, liluratuta miretsi zituen ninfa haiek, bai eta ederretsi ere beraien gorputz lirainak, ahots zoliak eta, batik bat, poztasun mugagabea, soilik hilezkortasunak eman dezakeena.

So geratu zen, beraz, izaki eder haiek banaka-banaka aldendu ziren arte. Iluntze aldera, bakarra gelditu zen: Zuriaren ustez, zegoenik eta lamiarik politena. Zuriak ez zezakeen begirada izaki harengandik banatu; bazirudien -horrela, behintzat, sentitzen zuen berak- sorginduta zegoela, mugitu ezinik. Bat-batean, zera entzun zuen:

- Zenbat denbora emango dun ezkutatuta, eder horrek? Etorri hona, niregana; ahizpak joanak ditun. Dirdai naun. Nor haut hi?

Lamia begira zegokion, zuzen eta artez. Zuriak, bitan pentsatzeke, boz erakargarriari min egin eta segituan abiatu zen. Berehala hasi ziren solasean, kontu-kontari, betiko adiskideak izan balira legez. Biak aurrez aurre antzemanenez gero, batek baino gehiagok esango zukeen hagitz antzekoak zirela, hala gorpuzkeran nola aurpegieraz, keinuetan zein berba egiteko moduan. Ur pegarra bazter batean ahaztuta, Zuriari lipar batean igaro zitzaion gaua; eta, konturatzerako, egunsentiaren irribarre arrosa azaldu zen zeruertzean. Orduan, agur esanda, hurrengo arratsalderako egin zuten hitzordua, asko baitzuten ikasteko elkarrengandik.

Zuria eta Dirdai lagun min bilakatu ziren aurki, harik eta maitasunak adiskidetasuna ordezkatu zuen arte. Banaezin bihurtu ziren; Zuriak bakarrik desiratzen zuen Dirdairen konpainia, ez lagunak, ez ahaideak...; Dirdai egoera berean zegoen, Zuria beste inor ez zuelarik behar aldamenean.

Lamiaren eta neskatilaren arteko harremana, hasieran oharkabean pasatu bazen ere, ezagun egin zen eskualdeko biztanle guztientzat. Grezian ez bezala, Euskal Herrian ez zen batere ohikoa jainkoek eta gizakiek horren harreman estua ezartzea; horregatik, albistea Mari ahaltsuaren belarrietara heldu zenean, batzar bat antolatzea erabaki zuen, egoeraren larriaz ohartuta.

Hurrengo ilbetean, euskal jeinu, espiritu eta izaki mitologiko gehienak bildu ziren basoaren soilgune batera, Zuria-Dirdai bikotearekin zer egin zitekeen adosteko. Han zeuden, beste hainbaten artean, Mari eta Sugaar, Gaueko eta Inguma, basajaunak, lamiak, jentilak eta enparauak.

Mota guztietako iritziak entzun ziren orduko biltzar hartan: alde zein kontra, zorrotz zein gupidatsu. Azkenean, Marik berak jakinarazi zuen jainkoen ebazpena: kaltegarria izan zitekeenez gero bi izaki ezberdin haien arteko amodioa, hobe zen berriro elkartu ez zitezen. Horren ondorioz, Dirdai ez zen gehiagotan agertuko Igartubeiti ondora; aurrerantzean, Zuriak ez zuen izango lamien iturrira joaterik. Guztiontzako bakeari eustea omen zen helburua.

Goibeltasunez, biek ala biek onartu zuten epaia, aurreneko hiletan gutxienez. Alabaina, udazken arratsalde batean, Dirdai Zuriaren logelan agertu zen. Haraino iristeko, txori itxura hartu behar izan zuen, bai eta hormaren zirrikitu estu-estu bat zeharkatu ere. Bideak segurua ematen zuenez, handik aitzina egunero-egunero errepikatu ziren bisitak, negu gorri zitala agertu zen arte.

Dirdai konbentziturata zegoen bere ahizpetako inork ez zuela susmorik hegaldi sekretuen inguruan; ez zen horrela. Arrai lamiak bazekien zertan zebilen Dirdai, eta honela mintzatu zitzaion behin:

- Ahizpa maitea, badakin nolako arriskuan bizi haizen? Txori bihurtzen haizen bakoitzean, indar magiko oro galtzen dun. Ezer agituko balitzain orduan, hil hinteke. Kontuan har ezan, arren!

Zuriarenganako grina, baina, beldur guztiak baino boteretsuago izaki, Dirdaik egunez egun ekiten zion bidaiari, ezelango kezkarik gabe. Arratsalde batean, tamalez, eguraldiak bere bisaiarik beltzena erakutsi zuen: haize bortitza, hotz glaziarra, elur-ekaitza, iluntasun ikaragarria... Txori gaixoak eginahal guztiak egin zituen arren maitearen leihora ailegatzeko, bere hegaltxo ahulek ez zuten aski indarrik izan, eta

esfortzuak itota, zoru elurtuaren gainean jausi zen, azken hatsa emanda. Ehun bat metrora baino ez zegoen baserritik.

Zuriak ez zuen deus jakin hurrengo orduetan. Halako batean, txori bat ikusi zuen pausatuta bere ohandzean, eta, pozez zorutzen, musua ematera joan zitzaion. Alta, hura ez zen Dirdai, Arrai baizik. Astiro, ahal izan zuen moduan, egia osoa kontatu zion, egia hitsa. Biharamunean, zerbait ordu bila eta bila eman ostean, Zuriak ediren zuen txoriaren hilotz izoztua. Etxean lurperatu zuen, isil-gordeka, sendiko inork ezertxo ere jakiteke. Lurra biguna ohi da, malkoekin bustiz gero.

Geroztik, sekula ez da horrelako beste istoriorik sortu gizakien eta jainkoen artean. Geroztik, bi mundu osatzen ditugu: nork berea.

JENTILA